



Mendixka

IBAIBEKO GURASO ELKARTEAREN ALDIZKARIA

Ongi etorri

Hona hemen guraso eta Elkartearen arteko harremanak estutzeko eta ezagutzeko bidea.

Aspaldian nabaria zen informazio arloan hutsune bat bazegoela, hau da, sarritan informazio bide bakarra patioa zen, ez besterik.

Hutsune hau estaltzeko asmoz komunikazio zubi hau apurka-apurka eraikitzen hasiko gara.

Baina ez soilik elkartekideok parte hartzeko baita zuek ere, edozein arrazoiengatik Elkartean ez zaudeten horiek, har dezakezue parte informazioa edota zuen iritzia helaraziz.

Utz ditzagun aurkezpen berbak, eta agur dezagun aldizkaritxo xume hau, gaur bere jaio-eguna da eta.

Zorionak!

Hauexek dira une honetako gai nagusiak:

1. 2007-08 ikasturteko egitasmoak
2. Eskolaz kanpoko ekintzak
3. Jantokia
4. Estalkia
5. Elkarbizitzarako hainbat arau



NON GAUDE?


Liburutegiaren ondoan (astelehen eta ostegunetan, 16:45-17:45) eta Ibaiberen web orrian www.ibaibe.net

2007-08 ikasturteko egitasmoak

Hemendik aurrerakoak hauek dira:

- Aldizkariaren proiektua finkatu.
- Egutegia ateratzea, bi urterik behin ateratzen dugu eta aurten berriro ere gurekin izango dugu.
- Uda atzean utzita Gabonak datoz, eta haiekin batera Loteria, baietz aurten tokatu!
- Estalkiaren gaiaren jarraipena.
- Badirudi urrun dagoela, baina ikasturte honetako Aste Kulturalaren antolaketarekin hasi beharko dugu.

Dakizuenek, Ibaibe Herri Ikastetxea momentu honetan bi proiektutan murgilduta dago: Ikas-komunitateak eta Agenda 21. Batean zein bestean gure laguntza hortxe egongo da.



Estalkia

Aspaldian gabiltza pilotaleku baten premia aldarrikatzen, Hezkuntza Sailaren aurrean hamaika bilera eduki ostean pilotalekurik ez baina bai beheko patioan jartzeko estalki bat jarriko digute .Ez da guk nahi genuena, baina tira... Neurriak honako hauek dira: 40 x 30 metro, beheko arkupeen ondoan.

Oraindik ere gauza batzuk argitu behar dira, besteak beste, datak, epeak, azken ukituak, ... Informazio gehiago hurrengo alean.

Jantokia

Elkartekook jantokiko batzordean gaude, eta gure egitekoa da beronen kudeaketan laguntzea. Jantokian eman beharreko denbora antolatzen ere laguntzen dugu, arduradunak bultzatutako egitasmoa aurrera ateratzen, horretarako bi begirale kontratatu ditugu. Zerbitzu hau ordaintzeko urteko kuota bakarra ordaindu behar dugu, azaroan .Semealaba bat badaukagu: 27 € bi edo gehiago, 40 €

ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

2007-08 ikasturtea

JARDUERA	Norentzat	Eguna	Ordua	ZEN- BAT BALIO DU	ZENBAT UME	Monitorea	Non
Psicomotrizita- tea	4-5 urte A	Astelehe- na	13.45-14.45	93 €	7	Baldu	Psikomotrizitate gelan
	4-5 urte B	Astelehe- na	12.45-13.45	93 €	3	Baldu	Psikomotrizitate gelan
Euskal Dantzak	4-5 urte	Astelehen eta Ostira- la	16.45 - 17.45	42 €	18	Gurene eta Janire	Jantoki txikian
Euskal Dantzak (gurasoak)	<100	Asteazke- na	16.45 - 18.00	Dohai- nik	13	Maite	Jantokian
Antzerkia	4. 5.eta 6. mailak	Ostirala	16.45 - 18.15	100 €	7	Olatz	Erabilera anitze- ko gelan (HH)
Panpotx	4-7 urte	Astelehe- na	16.30 - 18.30	120 €	10	Nagore	Erabilera anitze- ko gelan (HH)
Eskubaloia	Benjamins (3.-4.mailak)	Astearte eta Oste- guna	12.45 - 13.45	50 €	6	Snzejana	Patioan
Taekwondo A	4 eta 5 urte	Astelehen eta Asteaz- kena	16.45-17.45	24 € hilean	14	Kerman	Gimnasioan
Taekwondo B	5, 6 eta 7 urte	Astelehen eta Asteaz- kena	17.45-18.45	24 € hilean	14	Kerman	Gimnasioan
Futbitoa	Minibenja- mines-A (1.-2.mailak)	Astearte eta Oste- guna	16.45-18.00	93 €	11	Gaizka	Patioan
Futbitoa	Minibenja- mines-B (1.-2.mailak)	Astearte eta Oste- guna	16.45-18.00	93 €	12	Tanis	Patioan
Futbitoa	Benjami- nes (3.- 4.mailak)	Astearte eta Oste- guna	16.45-18.00	93 €	12	Javier	Patioan
Futbol-7 ^a	Alevines	Astearte eta Oste- na	17.00-18.45	93 €	12	Ainhoa	Lasesarre

Nahasian

Euskadi tropikal honetan, eragin zure
aldakei, **SALTA KLASEAK !!!!**
Astelehenetan, 16:45–17:45, jantoki
txikian).



ELKARBIZITZARAKO HAINBAT ARAU

- 🔊 Kotxez baldin bazatoz, ez utzi zure kotxea bigarren lerroan ezta patioaren aurreko espaloaren gainean ere.
- 🔊 Presaka ibiltzea ez da aitzakia, denok horrela gabilta eta.
- 🔊 Patioaren barruan ezin da erre.
- 🔊 Txakurrak kanpoan, eta lotuta. Badakigu gure txakurrak ez duela ezer egiten baina ume batzuk ikuste hutsarekin beldurtzen dira.
- 🔊 Txiza egiteko lekua, komuna da. Eta ez patioa.



Liburutegiaren Ordutegia/ Egutegia

- 🔊 Asteartea— osteguna 16:45—17:30
(soil-soilik irakurtzeko eta etxerako lanak egiteko)
- 🔊 Jostailu zaharrak ez bota, Gabonetako Elkartasun Azoka martxan dago. Informazio gehiago hurrengo alean

AURTEN BAIETZ TOKATU!!! EROSI ETA (batez ere) ZABALDU !!!



- 🔊 Autoen sarbi-dean sortzen diren arazoengatik inguruan, Udalarekin bilera bat egingo dugu. Informazio gehiago hurrengo alean.

Elkartearen egoitzan salgai!!!